

## DAR LA VIDA

Los datos publicados por el INE a finales del pasado junio muestran un panorama desolador en materia de natalidad: la fecundidad se sitúa en 1,25 hijos y los nacimientos han caído un 6% respecto al año anterior. Acumulamos un descenso de un 30% en la última década; y si no nos hubiésemos visto beneficiados por la natalidad de los inmigrantes, este descenso en España habría alcanzado el 44%. En nuestro país mueren más personas de las que nacen, y mientras que la población de más de 65 años supera los nueve millones de personas, los menores de 15 años no llegan a los siete millones. Estos datos se agravan aún más si nos referimos al territorio vasco.

Tengo la impresión de que nos estamos acostumbrando a escuchar periódicamente este tipo de datos, sin calibrar suficientemente lo que implican... La publicación de este tipo de cifras, cada vez más inquietantes, suscita la lógica preocupación por la sostenibilidad del sistema de pensiones. Algunos incluso llegan a mostrar cierto temor por el futuro de nuestra civilización, ya que los flujos migratorios se aceleran por motivo de la descompensación demográfica; o, en el mejor de los casos, se escuchan algunas voces (pocas, por desgracia), planteando la necesidad de implementar medidas para favorecer la natalidad, tales como la conciliación laboral, la lucha contra la especulación en el precio de la vivienda, incentivos directos, etc.

No estamos ante un fenómeno nuevo en la historia de la humanidad, puesto que la crisis de natalidad ha acompañado a casi todos los declives culturales. Por poner un ejemplo, impresiona leer el siguiente texto de Polibio, historiador grecorromano, quien a mediados del siglo II a.C., en plena decadencia de la Grecia clásica, escribía: «En nuestros días, en toda Grecia, la natalidad ha descendido a un nivel muy bajo y la población ha disminuido mucho, de forma que las ciudades están vacías y las tierras en barbecho (...) Las gentes de este país han cedido a la vanidad y al apego a los bienes materiales; se han aficionado a la vida fácil y no quieren casarse o, si lo hacen, se niegan a mantener consigo a los recién nacidos, o solo crían uno o dos como máximo, a fin de procurarles el mayor bienestar mientras son pequeños y dejarles después una fortuna considerable. De ese modo, el mal se ha desarrollado con rapidez sin que nadie se haya dado cuenta...» A los pocos años de esta crónica (allá por el año 146 a.C.), el Imperio Romano fagocita a la Grecia decadente, hasta que siglos más tarde llega el ocaso del Imperio Romano, acompañado nuevamente de una profunda crisis de natalidad... Nihil novum sub sole!

Ahora bien, sería muy triste si nuestra preocupación por la crisis demográfica se circunscribiese al temor por el debilitamiento de nuestras pensiones, o al miedo a la llegada de extranjeros. Igualmente, sería muy ingenuo suponer que una administración pública vaya a ser capaz de revertir esta tendencia con la mera

aprobación de incentivos a la natalidad, por muy necesarios que sean. De hecho, las clases sociales más pudientes no tienen un índice de fecundidad superior a la media, y los inmigrantes en España tienen un número de hijos muy superior a los autóctonos, a pesar de que su nivel económico es inferior y sus dificultades objetivas para la conciliación laboral sean mayores.

Nuestra crisis de natalidad es uno de los signos más evidentes de la crisis de valores que sufre Occidente. En el contexto de una sociedad en la que la calidad de vida se identifica con el mero bienestar, el reto de la maternidad y la paternidad es percibido como demasiado exigente. Es innegable que la educación de los niños demanda una entrega plena e incondicional —me atrevería a decir que heroica—, que no es fácilmente compatible con la cultura del weekend, de la invasión digital, del consumismo compulsivo, del desorden de vida generalizado, de la crisis existencial... Ciertamente, la maternidad y la paternidad requieren ‘dar la vida’ en el sentido más amplio del término. ¡La crisis demográfica esconde una crisis de esperanza!

Para abordar la cuestión es importante que entendamos que la baja natalidad no solo compromete el futuro de una cultura, sino que afecta en gran medida a su presente. La carencia de niños en nuestras familias y en nuestra sociedad, nos empobrece mucho más de lo que suponemos. De hecho, en no pocas ocasiones hemos constatado que solo la inocencia de los niños es capaz de arrancarnos de nuestra zona de confort, de nuestro aburguesamiento, llevándonos a entregar lo mejor de nosotros mismos hasta alcanzar el cenit de la madurez, que suele coincidir con el olvido de uno mismo. Nuestra cultura necesita de los niños de forma apremiante, porque pocas cosas hay tan falsas como una alegría sin inocencia...

A lo anterior debemos agregar lo que supone hurtar a los niños la experiencia de la fraternidad. El déficit de fraternidad se traduce en la educación, en una notable dificultad para la socialización, además de una proclividad para desarrollar la herida narcisista. Si la experiencia filial nos ayuda a tomar conciencia de nuestra dignidad (somos únicos e irrepetibles), la experiencia de fraternidad nos enseña a ser uno más entre todos; algo absolutamente necesario.

Decíamos que la paternidad y la maternidad requieren ‘dar la vida’. Pero la vida es algo que nos supera. Es un ‘milagro’ que hemos recibido gratis y que estamos llamados a transmitir generosamente. Los creyentes no solemos hablar de reproducción, sino de procreación. Los animales se reproducen, ciertamente; pero los seres humanos procrean. Los progenitores colaboran con Dios creador para dar vida al mundo. En este día de la Natividad de María, 8 de septiembre, no podemos sino acordarnos de sus padres, Joaquín y Ana. ¡Gracias por haber traído al mundo a aquella de la que nacería el autor de la vida!

## BIZIA EMAN

INEk joan den ekainean argitara emandako datuek ikuspegi mingarria azaltzen zuten jaiotza-tasari buruz: ugalkortasuna 1,25 haurretan dago, eta aurreko urtearekin parekatuz %6an jaitsi dira jaiotzak. Azkeneko hamarkadan %30eraino gehitu dugu jaiotsiera; eta etorkinen jaiotza-tasaren mesedea izan ez bagenu, %44ra iritsi izango zen Espainian jaiotzen jaiotsiera. Gure estatuan gehiago dira hiltzen direnak, jaiotzen direnak baino; bestalde, 65 urtez gorako biztanleak bederatzi milioi baino gehiago diren bitartean, 15 urtez beherakoak ez dira zazpi milioira iristen. Datu hauek larriagoak dira oraindik euskal lurraldeari dagokionaz.

Susmoa dut ohitzen ari garela gisa honetako datuak aldian-aldian entzuten, horien ondorioak behar adinbat aztertu gabe... Gero eta kezkarriagoak diren horrelako kopuruak argitaraturik ikusteak zalantzan jartzen du, bidezko denez, erretiro-pentsio sistemaren iraunkortasuna. Badira gure zibilizazioaren etorkizuna bera beldur pixka batez ikusten dutenak ere, desoreka demografikoa dela-eta migratzaileen mugimenduak bizkortu egiten direlako; eta, gai honen onari begira, entzuten dira beste ahots batzuk (zoritxarrez, gutxi), jaiotza-tasari mesede egingo lioketen neurriak hartu beharra aipatzen dutenak, esaterako lan-kontziliazioa dela, etxebizitzaren salneurriaren espekulazioaren kontra egitea, zuzeneko laguntzak eskaintzea, etab.

Hau ez da gizadiaren historian lehenengo aldiz gertatzen den zerbait; kultura-beherakada gehienetan gertatu izan da jaiotzen krisia. Adibide bat jartzearren, harridura sortzen du Polibio grekoerromatar historialariak, K.a. II. mendean, Grezia klasikoaren gainbehera bete-betean zegoenean, idatzitako testu hau irakurtzeak: «Gure egunotan, oso maila baxura jaitsi da jaiotza-tasa Grezia osoan; asko gutxitu da biztanleria, hiriak hutsik baitaude eta lursailak lugorri (...) Lurralde honetako jendeak handikeriara jo du eta ondasun materialei lotua dago; errazkeriara zaletu da eta ez dute ezkondu nahi, edota ezkontzen badira, ez dituzte haur jaioberriak berekin eduki nahi, edota gehienez ere bat edo bi haur hazten dituzte, haur txiki diren bitartean ongizaterik handiena beraiei eskaintzeko eta gero aberastasun oparoa uzteko. Horrela, gaitza berehala zabaldu da inor konturatzeke...». Hori idatzi eta urte gutxi geroago (K.a. 146. urte inguruan), Erromatar Inperioak irentsi egin zuen galzorian zegoen Grezia, baina mende batzuk geroago Erromatar Inperioaren gainbehera etorri zen, eta berriro ere jaiotza-tasaren krisi sakona izan zen... Nihil novum sub sole!

Dena den, tristea izango litzateke benetan, krisi demografikoari buruzko gure kezka erretiro-pentsioen ahuleziara edota atzerritarren etorreraren beldurrera mugatuko balitz. Era berean, inozokeria hutsa izango litzateke, herri-administrazioa, jaiotzak ugaltzeko laguntza batzuk emate hutsarekin, joera hau aldatzeko gai izango dela pentsatzea, nahiz eta laguntza horiek guztiz beharrezkoak izan. Hain zuzen, maila

sozial aberatsekoek ez dute batezbesteko ugalkortasun-indizea baino handiagoa; eta, alderantziz, etorkinek Espainian seme-alaben kopuru askoz handiagoa dute bertakoek baino, nahiz eta haien ahalmen ekonomikoa baxuagoa eta lana kontziliatzeko zailtasun objektiboak handiagoak izan.

Mendebaldeak duen balio-krisiaren ezaugarriak nabarmenenetakoa gure jaiotza-tasaren krisia da. Bizi-kalitatea ongizatearekin besterik gabe neurtzen duen gizarte honetan, amatasuna edota aitatasuna erronka gogorregizat hartzen da. Ukaezina da haurren hezierak bizi-eskaintza osoa eta baldintzarik gabea eskatzen duela –heroikoa ere badela esango nuke nik–, eta hori ez dator bat inola ere weekend edo asteburuko kulturarekin, edota zaparrada digital, neurrigabeko kontsumismo, ordenarik gabeko biziera, krisi esistentzial, etabarrekin. Egiaz, amatasunak eta aitatasunak ‘bizia ematea’ eskatzen dute hitz hauen esanahirik zabalenean. Krisi demografikoak itxaropen-krisia ezkututzen du!

Gai hau argitzekoan garrantzi handia du honetaz jabetzeak, jaiotza-tasa baxuak ez diola gure kulturaren etorkizunari bakarrik erasaten, baizik eta baduela zerikusia neurri handi batean kulturaren orainarekin ere. Gure familietako eta gure gizarteko haur-eskasiak guk uste dugun baino askoz pobregoa egiten gaitu. Hain zuzen, hainbat alditan ikusi ahal izan dugu, haurren xalotasunak bakarrik ateraraztzen gaituela geure erosokeriatik, geure biziera burgesetik, eta geure onena ematera behartzen gaituela, heldutasunaren gailurrera iristeraino, nor bere buruaz ahaztean baitago gailur hori. Haurren beharrean dago gure kultura, era larrian gainera, ezer gutxi baitago xalotasunik gabeko alaitasuna baino gauza faltsuagorik...

Eta beste hau erantsi behar diogu orain esan dugu honi, haur horiei senidetasunaren esperientzia lapurtzen diegula. Senidetasun falta hori heziketan nabaritzen da, eta gizartekoitzerako zailtasun berezian, baita zauri nartzizista garatzeko joeran ere. Seme-alaba izatearen esperientziak geure duintasunaren kontzientzia izaten laguntzen digun bezala (bakarrak eta errepikaezinak garela, alegia), senidetasunaren esperientziak gizartean denen arteko bat izaten irakasten digu; guztiz beharrezkoa den gauza.

Amatasunak eta aitatasunak ‘bizia ematea’ eskatzen duela esan dugu. Baina gure gainetik dagoen zerbait da bizia. Dohainik hartu dugun eta besteei eskuzabal eman behar diegun ‘miraria’ da. Fededunok sorkuntza esaten diogu haurgintzari; animaliek umeak egiten dituztenean, aldiz, nolabait ere errepikatu egiten direla esango genuke. Gurasoak Jainko kreaizailearen kideko gertatzen dira munduari bizia emateko. Andre Mariaren Jaiotzako egun honetan, irailaren 8an, ezinbesteko dugu haren gurasoez gogoratzea, Joakim eta Anaz. Eskerrak beraiei biziaren sortzailearen Ama izango zena mundura ekarri izanagatik!

